ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA ELGOIBARKO UDALERRIAN HAURRENTZAKO ZERBITZUA (LUDOTEKA), NERABEENTZAKO ZERBITZUA(GAZTELEKUA) ETA BIDELAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS PARA LA INFANCIA (LUDOTECA), PARA LA ADOLESCENCIA (GAZTELEKU) Y EL SERVICIO DE ACOMPAÑAMIENTO EN EL MUNICIPIO DE ELGOIBAR.

1.- SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

1.1. Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako udal politika definitzea.

Elgoibarko Udalak haur, nerabe eta gazteen sustapenerako bideratzen duen politikaren xedea ondorengoa da: egonkortasunez, eta jarraikortasunez, Elgoibarko haur, nerabe eta gazteei garatzeko aukera ematea, eta haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gaztaroaren arlo bikoitzaz gozatzeko aukera ematea:

- Berezko balioa eta esanahia duen garai gisa; izan ere, pertsona bakoitza bere bizitzaren protagonista, hiritartasun eskubideen subjektu eta gizarte ehunaren ezinbesteko atal da.

- Heldutasunaren, ikaskuntzaren, banakako gaitasunen indartzearen eta giza loturen bitartez, harian-harian, emantzipazio prozesua bideratzen duen aldi gisa. Hau da, heldutasunerako ibilbide arrakastatsua eta atsegina egitea, erabakiak autonomia handiagoaz lortu ahal izateko, eta bizitzako proiektu pertsonala abian jarri ahal izateko.

Prozesu hau bultzatzeko, administrazioak talde hau (haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa)

1.- INTRODUCCIÓN Y JUSTIFICACIÓN

1.1. Definición de la política municipal de Infancia, Adolescencia y Juventud.

El objetivo de la política de Promoción de la Infancia, la Adolescencia y Juventud del Ayuntamiento de Elgoibar es facilitar con estabilidad y continuidad que las niñas, niños, adolescentes y jóvenes del municipio se desarrollen y disfruten de su infancia, adolescencia y juventud en su doble dimensión:

- Como etapa vital con valor y significado en sí misma, en la que cada persona es protagonista de su vida, sujeto de derechos de ciudadanía y parte indispensable del tejido social.

- Como etapa que, mediante la maduración, aprendizaje y fortalecimiento de capacidades personales y vínculos sociales, posibilita un proceso progresivo de emancipación, es decir, una transición exitosa y satisfactoria a la condición adulta, en la que se alcanza la mayor autonomía para la toma de decisiones y su puesta en práctica en un proyecto personal de vida.

Para favorecer este proceso, la administración se dota de una gama de servicios suficientes

osatzen duten adin tarteak etengabe artatzeko beharrezkoa den zerbitzu sorta eratu du.

para cubrir el continuo de atención a las diferentes franjas de edad que forman el colectivo (infancia, adolescencia y juventud).

Zerbitzu hauek ondorengo printzipio, balio eta irizpideak dituzte oinarri:

Estos servicios se basan en los siguientes principios, valores y criterios:

-Haur eta nerabeen sustapen politikaren izaera sektorial eta berariazkoa zein integral eta zeharkakoa.
-Zehar lerroak: parekidetasuna, ingurumena eta elikadura, inklusioa eta aniztasun kulturala eta euskararen sustapena.
-Erantzukizun publikoa eta gizarte partaidetza.
-Koordinazioa eta sare lana.
-Proaktibotasuna, gertutasuna, pertsonalizazioa, jarraikortasuna eta prebentzioa.
-Ezagutzan oinarritutako kalitatezko esku hartzea.

-Carácter sectorial y específico e integral y transversal de la política de promoción de la infancia y la adolescencia.
-Líneas transversales: paridad, medio ambiente y alimentación, inclusión y diversidad cultural y promoción del euskera.
-Responsabilidad pública y participación social.
-Coordinación y trabajo en red.
-Proactividad, cercanía, personalización, continuidad y prevención.
-Intervención de calidad basada en el conocimiento.

1.2.-Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak.

1.2.-Servicios para la Infancia y la Adolescencia.

Haurrentzako Zerbitzua:

Servicio para la Infancia:

Goiz-goizetik, haurren garapenean, garrantzia dute balio hezitzailea duten jolasean oinarritzen diren denborek eta lekuek, baina familiarteko eta eskolako denboretatik bereizita.

Desde muy pronto en el desarrollo infantil tienen sentido unos tiempos y espacios centrados en el juego como valor educativo, pero diferenciados de los tiempos y espacios intrafamiliares y escolares.

Zerbitzu horien xedea da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea. Proposamen hau haurtzaroan zehar egokitzen da, eta aukera ematen dio Administrazioari bere proiektuaren misioa betetzeko.

Estos servicios pretenden ser una oferta estable para esos tiempos y espacios. Una propuesta que se va adaptando a lo largo de la etapa infantil, y que permite a la Administración cumplir con la misión de su proyecto.

Nerabeentzako Zerbitzua:

Servicio para la Adolescencia:

Nerabezaroan areagotu egiten da pertsonek propiotzat hartzen dituzten denborak eta guneak izateko eta, familia eta eskola ingurutik bereziturik, berdinekin egoteko premia.

La adolescencia es una etapa en la que se acentúa la necesidad, por parte de las personas, de tiempos y espacios sentidos como más

propios, de encuentro con sus pares y diferenciados del entorno familiar y escolar.

Nerabeentzako zerbitzuaren xedea da denbora eta gune horietarako eskaintza egonkorra egitea, eta aldi berean, hurbileko pertsona helduei errespetuz gerturatzeko aukera ematea, baita nerabezaroak berezkoak dituen saiakerak eta ahaleginak egiteko laguntza eta erraztasunak ematea ere.

El servicio para adolescentes pretende ser una oferta estable para esos tiempos y espacios, a la vez que ofrece una proximidad respetuosa de personas adultas cercanas, que facilita y apoya algunos de los ensayos y los intentos propios de la adolescencia.

Bidelaguntza Zerbitzua:

Servicio de Acompañamiento:

Haurrak eta nerabeak zaurgarritasun egoeran egon daitezke. Hauek garapen pertsonalerako prozesuan laguntza behar dute.

Los niños, niñas y adolescentes pueden estar en situación de vulnerabilidad. Estos/as necesitan ayuda en el proceso de desarrollo personal.

Zerbitzuaren xedea da Elgoibarren bizi diren 11-17 urte bitarteko haurrei eta nerabeei hainbat zailtasun espezifiko dituztenean laguntzea:

La finalidad del servicio es ayudar a niños/as y adolescentes de entre 11 y 17 años que residen en Elgoibar con diferentes dificultades específicas:

-Trebetasun pertsonal eta sozialetan gabeziak.
-Eskola porrota (eskolan egokitu ezina, eskola goizegi uztea…).
-Sustantziadun eta sustantziarik gabeko adikzioak, jokabide jarrerak barne. (Esaterako, erosketa konpultsiboak, jokoa, apustua, mugikoren gehiegizko erabilera, estetikaren gehiegizko ardura….)
-Gizarteratze prozesu ezegokiak izatea.
-Harremantzeko zailtasunak berdinekin, komunitatearekin… (sexista, matxista, indarkerian oinarritutakoa, gatazkatsuak / arriskutsuak…).
-Isolamendu egoerak.
-Beste batzuk (irizpide teknikoaren arabera) .

-Carencias en habilidades personales y sociales.
-Fracaso escolar (inadaptación escolar, abandono prematuro...).
-Adicciones con y sin sustancia, incluidas las actitudes comportamentales. (Por ejemplo, compras compulsivas, juego, apuesta, uso excesivo del móvil, exceso de celo estético...).
-Procesos de inclusión social inadecuados.
-Dificultades de relación con iguales, con la comunidad... (sexista, machista, basada en la violencia, conflictivas/peligrosas...).
-Situaciones de aislamiento.
-Otros (según criterio técnico).

1.3. Zerbitzuen jarduera esparruak.

1.3. Áreas de actuación de los servicios.

Zerbitzu hauen eskaintza haurren eta nerabeen beharren detekzio jarraituan oinarritzen da, eta premia horiei erantzuna eman nahian egiten den eskaintza eta esku

La oferta de estos servicios se basa en la detección continuada de las necesidades de los niños, niñas y adolescentes, y la oferta e intervención que se realiza para dar respuesta a

hartzea honako jarduera eremuetan antolatu ohi da:

- Informazioa.
- Orientabidea.
- Akonpainamendua.
- Aisia hezitzailea.
- Adierazpenerako eta partaidetzarako kanalak.
- Sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntzak.

estas necesidades se organiza habitualmente en los siguientes ámbitos de actuación:

- Información.
- Orientación.
- Acompañamiento.
- Ocio educativo.
- Canales para la expresión y participación.
- Apoyos para la creación y producción.

Arestian adierazitakoaz gain, zerbitzuek, hartzaileekiko zuzeneko elkarreragina sustatu ez ezik, lankidetzarako eta sareko lanerako dinamikak ere bultzatuko dituzte hainbat esparrutan, haurren eta nerabeen garapen eta emantzipazio prozesuetan, beraien eskubideez gozatzeko garrantzitsuak diren sistemak eta politikak kontuan izanik, eta betiere, hartzaileen partaidetza aktiboa izanik. Ildo horretatik, metodologia parte-hartzailea lanabes oinarrizkoa eta estrategikoa izango da zerbitzu bakoitzean.

Además de lo anteriormente indicado, los servicios, además de contar con una interacción directa con sus personas destinatarias, promoverán dinámicas de colaboración y trabajo en red con diferentes ámbitos, sistemas o políticas que sean importantes en los procesos de desarrollo y emancipación de los niños, niñas y adolescentes y de disfrute de sus derechos, teniendo siempre las personas destinatarias una participación activa. En este sentido, la metodología participativa será una de las herramientas fundamentales y estratégicas de cada uno de los servicios.

2.- KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honen helburua da Elgoibarko udalerrian, Haurrentzako zerbitzua, Nerabeentzako zerbitzua eta Bidelaguntza zerbitzua eskaintzeko baldintza teknikoak arautzea.

2.1. Zerbitzu bakoitzaren helburuak.

Haurrentzako Zerbitzuaren helburuak:

-Haurrekin beraiekin lotutako helburuak;

2.- OBJETO DEL CONTRATO

El presente pliego tiene por objeto la regulación de las condiciones técnicas para la prestación de los servicios para la Infancia, el servicio para la Adolescencia y el servicio de Acompañamiento en el municipio de Elgoibar.

2.1. Objetivos de cada uno de los servicios.

Servicio para la Infancia:

-Objetivos vinculados a la infancia;

1.-Beren haur izaera ingurune desformalizatu eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.	1.-Posibilitar el desarrollo de ser niños y niñas de un modo favorable en un entorno desformalizado y lúdico.
2.-Betebeharrik gabeko beren denbora eta aisia era aktiboan, parte-hartzailean, sortzailean eta osasuntsuan gozatzea, ongizatea eta garapen pertsonala eta soziala bultzatzeko.	2.-Gozar de su tiempo sin obligaciones, de su ocio, de modo activo participativo, creativo y saludable, con el fin de impulsar el bienestar y el desarrollo personal y social.
3.-Bizitzarako oinarrizkoak diren jarrerak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea (hala nola, kognitiboak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak, teknologia berrien erabilera osasuntsua, errealitatean oinarritutako nortasun digitalaren eraikuntza e.a.).	3.-Adquirir y desarrollar las actitudes y las habilidades básicas de la vida (es decir, cognitivas, sociales, psicomotrices, afectivas, uso saludable de las nuevas tecnologías, desarrollo de la identidad digital realista etc.).
4.-Beren artean haur-izaeren aniztasuna ezagutu eta haur izateko modu desberdinak onar ditzaten erraztea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.	4.-Conocer las diferentes formas de ser niños y niñas y facilitar la aceptación de esos modos diferentes de ser. Crear dinámicas para la convivencia de la diversidad idiosincrática.
5.-Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea, suspertzea.	5.-Promover e impulsar la convivencia grupal y las relaciones intergrupales.
6.-Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabezarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.	6.-Facilitar las transiciones (de la infancia a la adolescencia), teniendo en cuenta los diversos ritmos y situaciones.
7.-Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.	7.-Promover el conocimiento, el entendimiento y el pensamiento para cambiar la realidad cercana a su entorno.
8.-Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.	8.-Hacer que se sientan sujetos activos que participan en los temas comunes.
9.-Jakin-nahia bultzatzea eta oinarrizko informazioa eskuratzen laguntzea, gizartearen partaide aktibo izan daitezen.	9.-Impulsar el deseo de conocimiento y facilitar el alcance de la información, para que participen activamente en la sociedad.

10.-Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak haurren eskura jartzea, haurren heltze prozesua erraztu eta laguntzeko.

10.-Poner a disposición de los niños y niñas una serie de personas adultas beneficiosas que, estando dispuestas a crear una relación eficaz, faciliten y acompañen el proceso madurativo de estos/as.

11.-Hainbat gaitasunen garapena sustatzea: hala nola, erabakiak hartzea, iritzia ematea eta parekoen taldearekin eztabaidan jardutea, duten gaitasunaren arabera, eta haien interesekoak diren gaietan.

11.-Promover el desarrollo de diferentes capacidades: esto es, la adopción de decisiones, el hecho de dar opiniones y debatir con el grupo de iguales en temas que sean de su interés, de acuerdo con las capacidades que poseen.

-Helduen gizartearekin lotutako helburuak;

-Objetivos vinculados a la sociedad adulta;

1.-Helduen gizarteari haurtzaroa zer den eta haurrek beraien eskubideetan oinarrituta etapa horretan dituzten beharrak zein diren azaltzea, aukerak sortuz.

1.-Explicar a la sociedad adulta qué es la infancia y las necesidades que tienen en esa etapa, de acuerdo con sus derechos, creando oportunidades.

2.-Hezkuntza-denborari buruzko ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin eta beste profesional batzuekin haurrak modu aktiboan hezteko modu egokiak lantzea.

2.-Difundir entre las familias la idea de tiempo educativo. Trabajar junto con las madres y padres y otros profesionales las formas adecuadas de educar activamente a las y los niños y niñas.

-Beste profesional batzuekin lotutako helburuak;

-Objetivos vinculados a otros profesionales;

1.-Haurrez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haurrei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea.

1.-Crear y compartir con los/as profesionales de diferentes recursos y sistemas que se ocupan de la infancia las formas adecuadas y eficaces de atender a esas personas.

2.-Haurrei arreta emateko, sareko lan–sistema komunitario batean parte hartzea.

2.-Participar en un sistema de trabajo comunitario para atender a la infancia.

Nerabeentzako zerbitzuaren helburuak:

Objetivos del servicio para Adolescentes:

-Nerabeekin beraiekin lotutako helburuak;

-Objetivos vinculados a las y los adolescentes;

1.-Nerabeen izaera ulertzen eta kudeatzen laguntzea.	1.-Ofrecer ayuda para comprender y gestionar la idiosincrasia adolescente.
2.-Nerabeen izaera ingurune desformalizatu eta ludiko batean modu onuragarrian gauzatzeko aukera ematea.	2.-Posibilitar el desarrollo de la adolescencia de un modo favorable en un entorno desformalizado y lúdico.
3.-Betebeharrik gabeko beren denbora betetzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sorkuntzakoak ahalbidetzea.	3.-Gozar de su tiempo sin obligaciones, de su ocio de modo activo participativo, creativo y saludable, con el fin de impulsar el bienestar y el desarrollo personal y social.
4.-Bizitzarako oinarrizkoak diren jarrerak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea (hala nola, kognitiboak, sozialak, psikomotrizitatekoak, afektiboak, teknologia berrien erabilera osasuntsua, errealitatean oinarritutako nortasun digitalaren eraikuntza e.a.).	4.-Adquirir y desarrollar las actitudes y las habilidades básicas de la vida (es decir, cognitivas, sociales, psicomotrices, afectivas, uso saludable de las nuevas tecnologías, desarrollo de la identidad digital realista etc.).
5.-Nerabeek jarduerak antolatzeko, euren burua antolatzeko eta denbora kudeatzeko egiten dituzten proposamenak jaso eta bideratzea.	5.-Facilitar y recoger las propuestas que realizan las y los adolescentes para organizar actividades, para organizarse a sí mismos y para gestionar sus tiempos.
6.-Nerabe izateko modu desberdinak ezagutzea eta horiek onartzen laguntzea. Izaera desberdin horiek elkarrekin bizitzeko dinamikak sortzea.	6.-Conocer las diferentes formas de ser adolescente y facilitar la aceptación de esos modos diferentes de ser. Crear dinámicas para la convivencia de la diversidad idiosincrática.
7.-Talde bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea eta suspertzea.	7.-Promover e impulsar la convivencia grupal y las relaciones intergrupales.
8.-Trantsizioak erraztea (haurtzarotik nerabezarora eta nerabezarotik gaztarora), erritmo eta egoera desberdinak kontutan hartuta.	8.-Facilitar las transiciones (de la infancia a la adolescencia y de la adolescencia a la juventud), teniendo en cuenta los diversos ritmos y situaciones.
9.-Arriskuen kudeaketaren ikaskuntza lantzea.	9.-Trabajar al aprendizaje de la gestión de riesgos.

10.-Beren inguruko errealitate hurbila ezagutzera, ulertzera, nola aldatu pentsatzera bultzatzea.	10.-Promover el conocimiento, el entendimiento y el pensamiento para cambiar la realidad cercana a su entorno.
11.-Guztion gaietan parte hartzen duten subjektu aktibo sentiaraztea.	11.-Hacer que se sientan sujetos activos que participan en los temas comunes.
12.-Jakin-nahia bultzatzea eta oinarrizko informaziora iristen laguntzea, gizartearen partaide aktiboak izan daitezen.	12.-Impulsar el deseo de conocimiento y facilitar el alcance de la información, para que participen activamente en la sociedad.
13.-Sorkuntza eta ideien hedapena suspertu eta ahalbidetzea.	13.-Promover y posibilitar la creatividad y la difusión de ideas.
14.-Harreman eragingarri bat sortzeko prest dauden heldu onuragarriak nerabeen eskura jartzea.	14.-Poner a disposición de las y los adolescentes una serie de personas adultas que estén dispuestas a crear una relación eficaz.
15.-Harreman eragingarriak lantzea nerabeen eremuetan presentzia izanez, jarduerak dinamizatuz, laguntza-eskainiz.	15-.Crear relaciones eficaces en los espacios de las y los adolescentes, dinamizando actividades, ofreciendo ayuda.
16.-Nerabeen autonomia suspertzea eta haien jokaerek erantzuna izan dezaten laguntzea, nork bere erantzukizuna landu ahal izateko.	16.-Promocionar su autonomía y facilitar que sus comportamientos tengan una respuesta, para que cada persona trabaje su responsabilidad.
-Helduen gizartearekin lotutako helburuak;	*-Objetivos vinculados a la sociedad adulta;*
1.-Helduen gizarteari nerabezaroa eta nerabeek aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea. Nerabe-izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.	1.-Explicar a la sociedad adulta qué es la adolescencia y las formas en las que se vive esa etapa. Posibilitar las diferentes formas de ser adolescente.
2.-Hezkuntza-denborari buruzko ideia familien artean hedatzea. Gurasoekin, beste profesional batzuekin nerabeak modu aktiboan hezteko modu egokiak lantzea.	2.-Difundir entre las familias la idea de tiempo educativo. Trabajar junto con las madres y padres y otros profesionales las formas adecuadas de educar activamente a las y los adolescentes.
-Beste profesional batzuekin lotutako helburuak;	*-Objetivos vinculados a otros/as profesionales;*

1.-Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin nerabeei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortu eta partekatzea.

1.-Crear y compartir con los/as profesionales de diferentes recursos y sistemas que se ocupan de la adolescencia las formas adecuadas y eficaces de atender a esas personas.

2.-Nerabeei arreta emateko sareko lan–sistema komunitario batean parte hartzea.

2.-Participar en un sistema de trabajo comunitario para atender a la adolescencia.

Bidelaguntza zerbitzuaren helburuak:

Helburu nagusia;

Bidelaguntza zerbitzuaren helburu nagusia da bazterketa arriskuan dauden edota egoeran egon daitezkeen haurrak eta nerabeak antzematea eta garapen pertsonalerako prozesua laguntzea eta halaber, tresnak eskaintzea, autonomiaz baliatzeko, gizarteratzea hobetzeko eta familiarekiko eta komunitatearekiko bizikidetza egokia izateko trebetasuna lor ditzaten.

Objetivos del servicio de Acompañamiento:

Objetivo principal;

El objetivo principal del servicio de acompañamiento es detectar y acompañar en el proceso de desarrollo personal a las personas que puedan encontrarse en situación de riesgo y /o exclusión y dotarles de herramientas para que adquieran competencias para un mejor desenvolvimiento autónomo, su inclusión social y la adecuada convivencia en el medio familiar y comunitario.

Helburu espezifikoak;

Objetivos específicos;

-Haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten hezitzaileentzat orientazioa eta aholkularitza.

-Orientación y asesoramiento a los/as educadores/as que trabajan en servicios con niños, niñas y adolescentes.

-Bazterkeria kasuen identifikazioa, jarraipena eta deribazioa.

-Identificación, seguimiento y derivación de los casos de exclusión.

-Bazterkeria kasuei aurre egiteko dinamikak abiaraztea.

-Puesta en marcha de dinámicas para hacer frente a los casos de exclusión.

-Bazterkeria kasuak ekiditeko formaziorako bitartekoak bultzatzea.

Impulsar mecanismos de formación para evitar casos de exclusión.

-Inklusio beharra dutenei aurrez aurreko arreta eskaintzea.

-Atención presencial a personas con necesidades de inclusión.

-Unean uneko testuinguruak eraginda, edo beste arrazoi batengatik, haurren eta nerabeen kolektiboak izan ditzakeen arazo psikologikoak identifikatzea eta horiei aurre egiteko ekinbideak proposatzea.

-Identificar los posibles problemas psicológicos del colectivo infantil y juvenil derivados del contexto del momento, o por otro motivo, y proponer acciones para afrontarlos.

3.- ZERBITZUEN HARTZAILEAK

3.- PERSONAS DESTINATARIAS DE LOS SERVICIOS

Haurrentzako zerbitzua (Ludoteka): udalerrian dauden 5-12 urte arteko haur guztiei eskainiko zaie (HH5-LH6 bitartekoak).

Servicio para la Infancia (Ludoteca): se ofertará a todas las niñas y los niños del municipio de 5 a 12 años de edad (5º infantil-6º primaria).

Nerabeentzako zerbitzua (Gaztelekua): udalerrian dauden 13-17 urte arteko nerabe guztiei eskainiko zaie (DBH1-Batxi II).

Servicio para adolescentes (Gazteleku): se ofrecerá a todos los/as adolescentes de entre 13 y 17 años que se encuentren en el municipio (1ºESO-Bachillerato II).

Bidelaguntza zerbitzua: udalerrian egoera zaurgarrian egon daitezkeen 11-17 urte arteko haur eta nerabeak.

Servicio de Acompañamiento: Niños, niñas y adolescentes de 11 a 17 años que puedan encontrarse en situación de vulnerabilidad en el municipio.

Hain adin tarte zabal hauetan sartzen diren haurrek eta nerabeek dituzten errealitateen, gaitasunen eta premien artean dagoen aldea kontuan izanik, eskaintza berezitua izango da eta adin tarte bakoitzari egokitu beharko zaio.

Debido a las diferencias de realidades, capacidades y necesidades de los/as niños/as y adolescentes en un tramo de edad tan amplio, la oferta deberá ser diferenciada y adaptada a cada franja de edad.

Gizarte zerbitzuetako programen erabiltzaile diren haurrentzat eta nerabeentzat plazak gordeko dira oporraldietako eskaintzetan, gutxienez, adin tarte bakoitzeko eskaintzan bat.

En las ofertas vacacionales se reservarán plazas para los niños y las niñas usuarios/as de programas de servicios sociales, al menos una de cada franja de edad.

Udalerriko eskaera artatu ostean, beste udalerri batzuetako haurrak eta nerabeak onartzeko aukera aztertu ahal izango da.

Atendida la demanda del municipio se podrá estudiar aceptar en cualquiera de los servicios a niñas y niños y adolescentes de otros municipios.

Erabiltzaileen aniztasuna izango da kontuan (adina, jatorria, hezkuntza zentrua, generoa, e.a.), eta horretarako, estrategiak etengabe

Se perseguirá la diversidad de las personas usuarias (edad, origen, centro educativo, género, etc.); para ello se realizará una

antzeman, diseinatu eta aztertuko dira, aniztasun hori lortu ahal izateko.

detección continuada, análisis y diseño de estrategias que pretendan lograr dicha diversidad.

Horretaz gain, haurren eta nerabeen heziketaren ardura partekatzen duten pertsona helduak (gurasoak, hezitzaileak irakasleak, e.a.) zerbitzuen zeharkako hartzailetzat hartuko dira.

También se consideran destinatarias indirectas de los servicios a las personas adultas que comparten la responsabilidad educativa de las niñas, niños y adolescentes (padres-madres, personas educadoras, profesores/as, etc.).

4.- ZERBITZUEN ESKAINTZA

4.- PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS

Zerbitzuen eskaintza Udalak haurrentzat eta nerabeentzat ezarri dituen helburuak lortzera bideratuko da.

La prestación de los servicios estará orientada hacia la consecución de los objetivos que para ellos tiene establecidos el Ayuntamiento.

Zerbitzuaren arduradun nagusia Elgoibarko Udalaren Gazteria eta Hezkuntza Saila izango da (zinegotzi arduraduna eta arloko teknikaria).

La responsabilidad principal de los servicios será del Área Municipal de Juventud y Educación del Ayuntamiento de Elgoibar (concejal responsable y técnica del área).

Esleipendunak udal arduradunek zehazten dituzten orientabideak eta arauak jarraituko ditu.

El/la adjudicatario/a siempre seguirá las orientaciones y normas marcadas por los/as responsables municipales.

Zerbitzua eskaintzean, bi esparru handi bereizi behar dira: alde batetik, erabiltzaileekin zuzeneko arretan egin behar den lana (arreta presentziala eta birtuala), eta bestetik, barruko lana izenaz biltzen den lan multzo handia (planifikazioa, koordinazioa, ebaluazioa, prestakuntza, e.a.).

En la prestación de los servicios, se diferencian dos grandes ámbitos: por un lado el trabajo a desarrollar desde la atención directa (atención presencial y virtual) con las personas usuarias, y, por otro, una importante cantidad de tareas englobadas en lo que se denomina trabajo interno (planificación, coordinación, evaluación, formación, etc.).

4.1. Zuzeneko arreta.

4.1. Atención directa.

Erabiltzaileei agiri honen hasieran aipatu diren sei jarduera motak edo jarduera esparruak eskainiko zaizkie. 6 jarduera eremu hauek zerbitzuan proposatzen diren helburuak lortzeko lanabesak edo tresnak dira.

Desde cada uno de los servicios se ofrece a las personas usuarias los seis tipos de actuación o áreas de acción mencionadas al comienzo del documento. Estas 6 líneas de actuación son las herramientas o instrumentos para ir logrando los objetivos que se plantean en cada uno de los servicios.

Nolanahi ere, alde batetik, adin tarte desberdinak, eta bestetik, hartzaileen ezaugarriak adinaren arabera aldatzen direla kontuan izanik, jarduera esparruei emango zaien lehentasuna ere aldatu egingo da, eta erabiltzaileen premietara egokituko dira.

En cualquier caso, teniendo en cuenta las diferentes franjas de edad y que las características de las personas destinatarias varían en función de la edad, el grado en que se prioricen las áreas de actuación también variará y se adaptará a las necesidades de éstas.

Jarduerak programatzerakoan, hainbat une gorde beharko dira erabiltzaileek libreki jardun dezaten, ekintza gidatuez gain. Baina erabiltzaileen eskaeren eta premien azterketa etengabea izango da programazioaren oinarria.

La programación de actividades deberá reservar momentos para la actividad libre de las personas usuarias, además de contar con actividades dirigidas. Pero la programación siempre tendrá como base el análisis continuado de las demandas y necesidades de los/as usuarios/as.

Zerbitzuetako jarduerak azpiegituren barruan eta aire zabalean egingo dira.

Las actividades de los servicios se desarrollarán dentro de las infraestructuras y al aire libre.

Lokaletatik kanpo egiten diren jarduerak gauzatzeko lokalak itxi ahalko dira, beti ere, udal teknikariarekin adostuta.

Podrán cerrarse los equipamientos para la realización de actividades fuera de los locales, de acuerdo con la responsable técnica municipal.

Zenbait ekintza berezi eta oporraldietako eskaintzak ordaindu egin beharko dira, eta horietan hobariak izango dituzte honakoek:

Se pagarán determinadas acciones especiales y las actividades de la oferta de vacaciones, en las que se bonificarán las siguientes:

-Familia ugariek eta guraso bakarreko familiek: % 30eko deskontua.

-Familias numerosas y monoparentales: 30% de descuento.

-Bigarren seme-alabaren izen ematea egiten duten familiek: %30eko deskontua bigarren seme edo alabaren kuotan.

-Familias que realizan la inscripción del segundo/a hijo/a: 30% de descuento en la inscripción del segundo/a hijo/a.

-Gizarte izaerako dirulaguntzak (GLL eta DBE) jasotzen dituzten familiek: % 70eko deskontua.

-Familias beneficiarias de subvenciones de carácter social (AES y RGI): 70% de descuento.

Deskontuak ezingo dira metatu.

Los descuentos no podrán ser acumulables.

Halaber, ordaindu beharreko ekintza hauen kostua ezingo da familientzat ekintzaren kostu errealaren herena baino handiagoa izan.

Asimismo, el coste de estas acciones a sufragar no podrá suponer para las familias más de un tercio del coste real de la acción.

Diru sarrera hauek kudeatzaileak kudeatuko ditu eta deskontuak ere bai.

Estos ingresos los gestionará el/la adjudicatario/a y los descuentos también.

Hezitzailearen eta hezigaiaren arteko harremana, baita erabiltzaileen artekoa ere, izango da lan-tresna nagusia. Horrexegatik, ezinbestekoa izango da erabiltzaile bakoitzaren berariazko esparruak eta guneak errespetatzea, baina uneoro, hezitzaileen hurbiltasun enpatikoa eta erreferentziazko ezaugarria mantenduta.

La relación educativa, tanto entre el/la educador/a y el/ la educando como entre las personas usuarias será la herramienta principal. El aspecto relacional es unos de los ejes centrales de los servicios. Por tanto, será básico respetar los ámbitos y espacio propios de cada usuario/a, pero construyendo y manteniendo, en todo caso, la cercanía empática y cualidad referencial de los/as educadores/as.

4.2. Barruko lana.

4.2. Trabajo interno.

4.2.1. Planifikazioa.

4.2.1. Planificación.

Planifikazioa prozesu bat da, zeinaren bidez, eta hainbat aurrekari jakin kontuan hartuta (zerbitzuen aurretiazko ebaluazioak, Udalaren Gazteria eta Hezkuntza Sailaren plangintza, erabiltzaileek egiten dituzten proposamenak eta balorazioak, errealitatearen azterketa eta haurren eta nerabeen premiak), erabakiak hartzen baitira, lortu nahi diren helburuak nahiz helburu horiek lortzeko modua zehazteko.

La planificación es el proceso mediante el cual, partiendo de unos determinados antecedentes (evaluaciones previas de los servicios, planificación del Área de Juventud y Educación del Ayuntamiento, propuestas y valoraciones realizadas por las personas usuarias, análisis de la realidad y de las necesidades de niños/as y adolescentes) se toman decisiones que permiten establecer tanto los objetivos que se quieren alcanzar como la manera de alcanzarlos.

Zerbitzu bakoitzaren ikasturteko plangintza egingo da, bai zuzeneko arretarako, bai kudeaketa jardueretarako. Plangintza hori ikasturtearen hasieran, hau da, irailean, aurkeztuko da udaleko sarrera erregistroan.

Se realizarán planificaciones del curso de cada servicio, tanto para la atención directa como para las actividades de gestión. Estos planes se presentarán a principios del curso escolar, en septiembre, en el registro de entrada del Ayuntamiento.

4.2.2. Ebaluazioa.

4.2.2. Evaluación.

Ebaluazioa prozesu bat da, bere baitan zerbitzu bakoitzari, horien koordinazioari eta inguruneari buruzko informazioa lortzeko eta prozesatzeko egiten den guztia hartzen duena, eta jarduera ziklo berri bati aurre egiteko deskribapenak, azterketak eta balorazioak egiteko burutzen dena.

La evaluación es el proceso que incluye todo lo que se haga para obtener y procesar información de cada uno de los servicios, de su coordinación, y del entorno con el fin de obtener descripciones, análisis y valoraciones que permitan encarar un nuevo ciclo de actuación.

Ebaluazioa jarraitua eta integratua izango da, eta zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko datuak jasoko dira: datu kuantitatiboak (estatistikoak, asistentziari buruzko erregistroak, jardueretako partaidetzari buruzko datuak, jarraipen fitxak…) eta datu kualitatiboak (erabiltzaileen asebetetze maila, zerbitzuari buruzko iritzia, parte hartzeko erak…).

La evaluación será continua e integrada, recogiendo datos relativos al funcionamiento de cada servicio: datos cuantitativos (estadísticos, de registro de asistencias, datos de participación en actividades, fichas de seguimiento…) y datos cualitativos (nivel de satisfacción de los/as usuarios/as, formas de participación…).

Zerbitzuen jarraipena sistematizatzeko, uztailean aurkeztuko den ikasturte amaierako ebaluazio txostenaz gain, gutxienez, tarteko ebaluazio txostena aurkeztuko da otsailean, biak ala biak udaleko sarrera erregistroan. Txosten hori azterketa egiteko oinarritzat hartuko da, eta bertan, hurrengo seihilekorako hobetzekoak, egokitzekoak eta aldatzekoak jasoko dira.

Para la sistematización del seguimiento de los servicios, además del informe de evaluación de final de curso, que se presentará a finales de julio, como mínimo, se entregará en el Ayuntamiento un informe de evaluación en febrero, que servirá de base para el análisis. Este informe, incluirá las propuestas de mejora, de cambio o adecuación de cara al siguiente semestre.

4.2.3. Koordinazioa.

4.2.3. Coordinación.

Koordinazioaz ari garenean, ondorengo gaiei buruz eta koordinazio maila desberdinei buruz hitz egiten dugu;

Cuando hablamos de coordinación, nos referimos a los siguientes aspectos y distintos niveles de coordinación;

-Barne koordinazioa:

- Zerbitzu bakoitzeko langileen artean, egindako esku-hartzea baloratzeko, hurrengo esku hartzea prestatzeko, erabiltzaileen premiak antzemateko, eta bidezkoa denean, zerbitzua planifikatzeko eta ebaluatzeko.

-Coordinación interna:

- Entre los/as educadores/as de cada servicio, para valorar la intervención realizada, preparar la futura, detectar las necesidades de los/as usuarios/as, planificar y evaluar el servicio cuando proceda.

- Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuen eta Bidelaguntza zerbitzuaren artean, zerbitzuen jarraikortasuna planifikatzeko eta baloratzeko eta zerbitzuen arteko trantsizioa prestatzeko.

- Entre los servicios para la Infancia y la Adolescencia y el servicio de Acompañamiento para planificar y valorar el continuo de los servicios y preparar la transición entre servicios.

- Udalarekiko koordinazioa:

- Coordinación con el Ayuntamiento:

Zerbitzuen jarraipenerako Udalaren Gazteria eta Hezkuntza sailak egoki ikusten duen maiztasunarekin bilerak egingo dira.

Se mantendrán reuniones con la periodicidad que el departamento de Juventud y Educación del Ayuntamiento considere oportuna para el seguimiento de los servicios.

Bileretan, gutxienez, Udaleko Gazteria eta Hezkuntza teknikariak, enpresa kudeatzaileko teknikariak eta zerbitzuetako lan-talde bakoitzeko hezitzaile batek parte hartuko dute.

En estas reuniones participarán como mínimo la técnica municipal, el/la técnico/a de la empresa gestora y un/a educador/a de cada servicio.

Gazteria eta Hezkuntza sailarekin koordinatzeaz gain, Bidelaguntza zerbitzuko hezitzaileak Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailarekin koordinatu beharko du, artatutako kasuen jarraipena egiteko.

Además de la coordinación con el departamento de Juventud y Educación, la persona educadora del servicio de Acompañamiento deberá coordinarse con el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento para el seguimiento de los casos atendidos.

Bilera hauen maiztasuna eta edukia Gizarte Zerbitzuek zehaztuko dute.

La periodicidad y contenido de estas reuniones se determinará por los Servicios Sociales.

Bilerez gain, Udalaren, enpresa esleipendunaren eta zerbitzuak eskaintzen dituen taldearen arteko harremanak arinak izango dira, adibidez, posta elektronikoz, telefonoz, e.a.

Además de las reuniones, la coordinación entre el Ayuntamiento y la empresa adjudicataria y el equipo que presta los servicios será fluida, vía mail, teléfono etc.

-Kanpo koordinazioa:

-Coordinación externa:

- Beste sistema batzuekiko koordinazioa:

- Coordinación con otros sistemas:

Herrian nahiz eskualdean, adin tarte berarekin lan egiten duten sistemekin, zerbitzuekin eta erakundeekin koordinatuko dira zerbitzuetako hezitzaileak (oinarrizko gizarte zerbitzuak, hezkuntza zentruak e.a.), maiztasun eta helburu jakin batzuekin.

Horretarako, Udalak ezarritako protokoloak baliatuko dira.

Los/as educadores/as se coordinarán con los sistemas, servicios y entidades que trabajan con la misma franja de edad a nivel local o comarcal, con una frecuencia y objetivos concretos (Servicios Sociales de base, Centros Escolares etc.).

Para ello se seguirán los protocolos establecidos por el Ayuntamiento.

- Beste udal sail batzuekiko koordinazioa:

- Coordinación con otras áreas municipales:

Beste udal sail batzuekin koordinatuta egongo dira sustapenaren ikuspegia txertatzeko eta udalak haurrei eta nerabeei egiten dien eskaintza artikulatzeko eta eskaintza hori koherentea izateko.

Se coordinarán con otras áreas municipales, para incorporar la perspectiva de promoción , articular y dar coherencia a la oferta municipal dirigida a niños/as y adolescentes.

Horretarako, Udalak ezarritako protokoloak baliatuko dira.

Para ello se utilizarán los protocolos establecidos por el Ayuntamiento.

- Beste eragile batzuekiko koordinazioa:

- Coordinación con otros agentes:

Gutxienez zerbitzu bakoitzeko hezitzaile batek Udalak eragileekin dituen koordinazio guneetan parte hartuko du.

Al menos uno/a de los/as educadores/as de cada servicio participará en los espacios de coordinación que tiene el Ayuntamiento con otros agentes.

Bestalde, zerbitzuek arreta berezia eskainiko diote familiekiko etengabeko harremanari, eta inguruan presente dauden beste eragile edo zerbitzuekin lankidetza izateari eta sareko lana egiteari.

Por otra parte, los servicios prestarán especial atención a la relación permanente con las familias y a la colaboración y trabajo en red con los agentes o servicios de otros ámbitos presentes en el entorno.

4.2.4. Komunikazioa.

4.2.4. Comunicación.

- Haurrentzako zerbitzuak eta nerabeentzako zerbitzuak eskaintzaren eta zerbitzuaren beraren zabalkundea eta promozioa

- El servicio de Infancia y el servicio de Adolescencia se encargarán de la difusión de su oferta así como de la promoción del propio servicio

egiteaz arduratuko dira eta hainbat kanal ezarriko dira, informazioaren eta zerbitzuaren erabiltzaileen eta hartzaileen arabera. Informaziorako materialean (grafikoak, oharrak eta azalpenak) Udalaren armarria edo logotipoa txertatu beharko da, eta zerbitzuaren titularra Udala dela adierazi beharko da.

estableciendo diferentes canales en función del tipo de información y de usuarios/as y destinatarios/as de los servicios. El material informativo (tanto material gráfico como avisos y exposiciones) deberá incorporar el escudo/logo del Ayuntamiento indicando que el titular de los servicios es el Ayuntamiento.

Idatzizko kanpo komunikazioetan (eskuorri, kartel, familientzako mezuak…) euskara batuaren erabilera lehenetsiko da, Udalaren hizkuntza irizpideak jarraituz.

En las comunicaciones externas escritas (folletos, carteles, mensajes a las familias) se priorizará el uso del euskera batua, siguiendo los criterios lingüísticos del Ayuntamiento.

Haurrekiko, nerabeekiko eta familiekiko harremanetan (ahozkoak, sare sozialen bidezkoak ea.) euskara lehenetsiko da eta Elgoibarko hizkera ere erabili ahalko da, baldin eta erabiltzaileek ulermen arazorik ez badute. Hori bai, sare sozialetan, elgoibarreraz egitekotan, idazkera zuzena erabili beharko da, ahozko elgoibarrera eta idatzizkoa ez baitira berdinak

En la relación con niños, niñas , adolescentes y familias (orales, a través de las redes sociales, etc.) se priorizará el uso del euskara y también se podrá utilizar el lenguaje de Elgoibar siempre que los/as usuarios/as no tengan problemas de comprensión. Eso sí, en las redes sociales, se deberá utilizar la escritura correcta, ya que el elgoibarrés oral no es el mismo que el escrito.

- Zerbitzuei buruz eman beharreko bestelako informazioa (Ekipamenduari buruzkoa, kontratuari buruzkoa, erabiltzaileei buruzkoa e.a) Udalaren arduran geratuko da.

- Cualquier otra información relativa a los servicios (Equipamiento, Contrato, Usuarios/as etc.) quedará a cargo del Ayuntamiento.

4.3.4. Ezagutza eta kalitatea kudeatzea.

4.3.4. Gestión del conocimiento y calidad.

Langile taldeak beharrezkotzat hartzen diren zerbitzuen kudeaketa hobetzea xede duten prozeduretan eta metodoetan parte hartuko du, eta prozedura bihur daitezkeen prozesuak estandarizatuko ditu.

El equipo de trabajadores/as participará en aquellos procedimientos y métodos orientados a la mejora de la gestión de los servicios que se acuerden como necesarios y estandarizará aquellos procesos que sean factibles de ir siendo procedimentados.

Horretaz gain, Gipuzkoako lurraldean, Gaztematika esparruaren baitan, sortzen diren foroetan parte hartuko du, gutxienez lan taldeko kide batek, antzeko zerbitzuetan egiten diren dinamiken berri izan dezaten,

Así mismo, participará en los foros creados a nivel de territorio de Gipuzkoa dentro del marco Gaztematika, de modo que conozcan las dinámicas que se desarrollan en servicios similares, participen de las discusiones teóricas

zerbitzuentzako interesekoak diren eztabaida teorikoetan edo praktikoetan parte har dezaten eta Elgoibarko zerbitzuen ikuspegia eman dezaten.

o prácticas en cuestiones de interés para los servicios, aportando la visión de los servicios de Elgoibar.

Era berean, haien funtzioak egiteko egokitzat jotzen diren prestakuntza eta gaikuntza ikastaroetan eta saioetan parte hartuko du, gutxienez zerbitzu bakoitzeko lan taldeko kide batek.

También participarán en los cursos y/o sesiones de formación y capacitación que se consideren apropiados para el desarrollo de sus funciones al menos uno/a de los educadores/as de cada uno de los servicios.

5.- AZPIEGITURAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

5.- INFRAESTRUCTURAS Y MEDIOS MATERIALES

Baliabide materialei dagokienez, Udalak, zerbitzuak bideratu ahal izateko lokalak eta lokal horretan dagoen oinarrizko ekipamendua jarriko du (zerbitzuak eskaintzen hasi aurretik, ekipamenduko materialaren eta tresnen inbentarioari buruzko akta egingo da eta sei hilean behin berrikusiko da, memoria txostenean jasoz).

En lo que respecta a los recursos materiales, el Ayuntamiento aporta para el desarrollo de los servicios los locales y el equipamiento básico que en ellos hay (levantándose acta del inventario material y enseres del equipamiento con anterioridad al inicio de la prestación de los servicios y se revisará semestralmente, presentándolo en el informe de evaluación semestral).

Udalak zerbitzuetarako jarriko duen azpiegitura honakoa izango da:

Las infraestructuras que el Ayuntamiento pone a disposición de cada servicio son:

Ludoteka: sarrera independentea duen lokala eta bertan dagoen ekipamendua, San Inazio 9an dagoena.

Ludoteca: local con entrada independiente y su equipamiento, situado en San Inazio nº 9.

Gaztelekua: sarrera independentea duen lokala eta bertan dagoen ekipamendua, Gabriel Kurutzelaegi 4an kokatuta dagoena.

Gazteleku: local de acceso independiente y equipamiento ubicado en Gabriel Kurutzelaegi nº 4.

Gainera, Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu zerbitzuak behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren ekipamendua eta altzariak.

Además, el Ayuntamiento pondrá a disposición del /la adjudicatario/a el equipamiento y el mobiliario necesarios para la prestación del los servicios.

Administrazioak esleipendunaren esku jarriko dituen informazio, dokumentazio, programa informatiko eta gainerako baliabide edo datu

Toda la información, documentación, programas informáticos y demás medios o datos que la Administración ponga a

guztiak administrazioaren jabetzakoak izango dira, eta kontratatutako lanak egiteko beharrezkoak diren heinean bakarrik erabili edo erreproduzitu ahal izango dira. Esleipendunak hitza emango du kontratua bukatutakoan itzuli edo suntsitu egingo dituela.

disposición del/ la adjudicatario/a son propiedad de la administración, y no podrán ser utilizados o reproducidos más que en la medida en que sea necesario, para desarrollar los trabajos contratados. El/la adjudicatario/a se comprometerá a devolverlos o destruirlos al finalizar el contrato.

Programazio gastuak (jarduerak egiteko kontratazioak, jarduerak egiteko beharrezkoa den materiala, zabalkunde kanpainak egiteko materiala, e.a.) lizitazio prezioaren barruan sartuko dira. Enpresa esleipendunak, dagozkion erosketak eta mandatuak kudeatuko ditu.

Entran en el precio de la licitación los gastos de programación (contrataciones para las actividades, material necesario para las actividades, material para las campañas de difusión, etc.). La empresa adjudicataria gestionará las adquisiciones, compras y encargos correspondientes.

Material suntsikorraren gastuak, hala nola bulegoko materiala, ofimatika-ekipoak (fotokopiagailuak, inpresorak...) eta horien mantentze-lanak, eta hezkuntza-taldearen lana egiteko behar diren gailu informatiko eta digitalak (ordenagailuak, mugikorrak e.a.) esleipendunaren kontu izango dira.
Telefono eta internet konexioak ere esleipendunaren arduran egongo dira.

Los gastos de material fungible como el material de oficina, los equipos ofimáticos (impresoras, fotocopiadoras etc. y su mantenimiento, así como los dispositivos informáticos y digitales requeridos para el desempeño del trabajo del equipo educativo (ordenadores, móviles etc.)serán a cargo del/la adjudicatario/a.
Las conexiones de telefonía e internet también serán a cargo del /la adjudicatario/a.

Era berean, esleipendunaren kontura izango dira biruskontrako lizentziak eta segurtasun informatikoa.

También serán a cargo del/la adjudicatario/a las licencias de antivirus y la seguridad informática.

Gastu hauek guztiak txosten ekonomikoan aurkeztu beharko dira, urtarrilean, urteko balantze ekonomikoan.

Todos estos gastos deberán presentarse en la memoria económica anual, en enero.

6.- ZERBITZUETAKO LANTALDEA ETA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

6.- EQUIPO DE TRABAJO DE LOS SERVICIOS Y OBLIGACIONES DEL/LA ADJUDICATARIO/A

6.1. Lantaldea.

6.1. El equipo de trabajo.

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko esleipendunak lantalde bat izango du. Lantaldearen curriculum akademikoa eta profesionala egokia izango da agiri honetan

Para poder ofrecer los servicios de forma adecuada, el/la adjudicatario/a dispondrá de un equipo de trabajo cuyo currículo académico y profesional sea apropiado para cubrir las

jasotzen diren zerbitzuen beharrizanak estaltzeko.

necesidades de los servicios recogidas en este documento.

Haurrentzako Zerbitzuko eta Nerabeentzako Zerbitzuko lantaldeak gutxienez hiruna hezitzailek osatuko dituzte. Bidelaguntza zerbitzurako hezitzaile bat jarriko da.

El equipo de trabajo estará formado mínimo por tres educadores/as en el servicio para la Infancia y tres en el servicio para la Adolescencia. El servicio de Acompañamiento tendrá un educador/a referente.

Zerbitzuaren premiak eta erabiltzaile kopurua aintzat hartuta, esleipendunak egokitu egin beharko ditu langileen egutegi-ordutegiak eta lan taldean arituko den langile kopurua, beti ere, gomendatutako ratioak betez.

Teniendo en cuenta las necesidades del servicio y el número de usuarios/as, el/la adjudicatario/a deberá adecuar los horarios de calendario del personal y el número de personas que trabajarán en el equipo, cumpliendo los ratios recomendados.

Era berean, Udalaren oniritziarekin, zerbitzuen artean, beharren arabera antolatu ahal izango dira langileak.

Asimismo, con el visto bueno del Ayuntamiento, entre los servicios se podrá organizar el personal en función de las necesidades.

Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuen kasuan, gutxienez, zerbitzu bakoitzean langile bat izango da lanaldi osorako, eta gainerako bi hezitzaileek ezin izango dute izan, % 80ko lan aldia baino gutxiago.
Bidelaguntza zerbitzuko hezitzaileak % 100eko lan aldia izan beharko du.

En el caso del Servicio para la Infancia y el servicio para la Adolescencia como mínimo, habrá un/una trabajador/a a jornada completa en cada equipo y los/as otros dos educadores/as no podrán tener una jornada laboral inferior al %80.
La persona educadora del servicio de Acompañamento estará a jornada completa.

Zerbitzuak eskainiko dituzten langileek, ondoko ezaugarriak izan beharko dituzte:

Los/as trabajadores/as que prestarán los servicios deberán tener, las siguientes características:

Konplexutasun eta autonomia-maila handiak eskatzen dituzten eginkizunen ardura duten langileak izan beharko dira; normalean, Esku-hartze Sozialaren edota Administrazio eta Kudeaketaren alorreko edo horiekin lotutako erdi-mailako unibertsitate-prestakuntza (diplomatura edo antzekoak) edo/eta eginkizun horiek gauzatzeko behar den trebakuntza eta esperientzia egiaztatuak dituzte horrelako langileek. Hau da, Esku hartze sozialari buruzko Gipuzkoako III Lan

Deberá tratarse de personal responsable de funciones que requieran una elevada complejidad y autonomía, normalmente con formación universitaria de grado medio (diplomatura o similares) y/o experiencia acreditada en el ámbito de la Intervención Social y/o Administración y Gestión, o en relación con ellas. Es decir, que tengan perfil de pertenencia al Grupo Profesional 2 del III Convenio Colectivo de Intervención Social de Gipuzkoa.

hitzarmeneko 2. talde profesionalean egoteko profila izan behar dute.

-Goian aipaturiko formakuntzaz gain, haurrekin eta nerabeekin lotutako proiektuetan 400 orduko esperientzia ziurtatuko dute.

-Además de la formación arriba mencionada, acreditarán 400 horas de experiencia en proyectos relacionados con la infancia y la adolescencia.

Lanean arituko diren pertsona guztiek 3. hizkuntza eskakizuna, EGA titulua edo titulu baliokideren bat izan beharko dute.

Todas las personas trabajadoras deberán poseer el perfil lingüístico 3, el título de EGA o equivalente.

6.2 Ordezkapenak eta langile berriak.

6.2 Sustituciones y nuevas incorporaciones.

Esleipenduna egin beharreko ordezkapenez eta kontratatu beharreko langile berriez arduratuko da, eta pertsona titularrek bete beharreko baldintza berberak bete beharko dituzte hauek.

La adjudicataria se hará cargo de las sustituciones y contrataciones de nuevos/as trabajadores/as a realizar y las personas suplentes deberán cumplir los mismos requisitos que se exigen a las personas titulares.

Pertsona titularren baldintza berberak betetzen dituen langilerik egon ezean, justifikatuta, hitzarmeneko kategoria baxuagoko profila duten profesionalak kontratatu ahalko dira.

En caso de no existir personal que cumpla los mismos requisitos que las personas titulares, se podrán contratar profesionales con perfiles que corresponden a una categoría inferior, del convenio.

Hasierako plantillan gertatzen diren aldaketa guztiek Udalaren oniritzia izan beharko dute.

Cualquier cambio que pudiera producirse en la plantilla inicial deberá contar con el visto bueno del Ayuntamiento.

6.3 Langileen gaitasunak.

6.3 Competencias de los/as trabajadores/as.

-Gizarte sareak, testuinguruak, prozesuak eta hezkuntza- eta gizarte-baliabideak sortzea.

-Generación de redes sociales, contextos, procesos y recursos educativos y sociales.

-Gizarte- eta hezkuntza-bitartekotza.

- Mediación social y educativa.

-Elgoibarko haurrentzako eta nerabeentzako hezkuntza-programak eta -proiektuak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea.

-Diseño, implementación y evaluación de programas y proyectos educativos para las niñas y niños y adolescentes de Elgoibar.

-Elgoibarko gizarte- eta hezkuntza-testuinguruak ezagutzea, aztertzea eta ikertzea.	-Conocimiento, análisis e investigación de los contextos sociales y educativos de Elgoibar.
-Hezkuntza-baliabideak kudeatzea, zuzentzea, koordinatzea eta antolatzea.	-Gestión, dirección, coordinación y organización de los recursos educativos.
Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak testuinguru formaletan eta ez-formaletan aztertzea, ikuspegi inklusiboak eta desberdintasunak gainditzeko ikuspegiak erabiliz..	-Analizar los procesos de enseñanza y aprendizaje en los contextos formales y no formales, utilizando perspectivas inclusivas y de superación de las desigualdades.
-Talde-testuinguruetako komunikazioaren oinarrizko elementuak identifikatzea, hezkuntza-harreman egokia ezartzeko eta norberaren eta taldearen garapenerako komunikazio-estrategia eraginkorrak ikasteko.	-Identificar los elementos básicos de la comunicación en contextos grupales, para establecer una relación educativa satisfactoria y aprender estrategias comunicativas eficaces para el desarrollo personal y grupal.
-Errealitatea interpretatzea Elgoibarren gizarte eta ingurumen-problematikaren ikuspegitik, haurren eta nerabeen benetako beharrak identifikatu ahal izateko eta hezkuntza-proposamenak egin ahal izateko iraunkortasunaren ikuspegitik.	-Interpretar la realidad desde el punto de vista de la problemática social y ambiental de Elgoibar para poder identificar necesidades reales de las niñas y niños y adolescentes hacer propuestas educativas en clave de sostenibilidad.
-Gizarte-hezkuntzaren testuinguruetan profesionalki esku hartzea, gizarte-hezkuntzaren oinarri teoriko-praktikoetan; klabe etikoetatik eta deontologia profesionalaren errespetutik, genero-ikuspegitik eta erantzukizun profesionaletik.	-Intervenir profesionalmente en contextos de la educación social, sobre las bases teórico-prácticas de la educación social; desde claves éticas y de respeto a la deontología profesional, con perspectiva de género y responsabilidad profesional.

7.- ZERBITZUEN EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

7.- CALENDARIO Y HORARIOS DE LOS SERVICIOS

7.1. Egutegiak.

7.1. Calendarios.

Zerbitzuek, irailetik uztailera emango dute arreta.	Los servicios deberán prestar atención de septiembre a julio.
Ez da arretarik emango honako egun hauetan:	No se prestará atención en los siguientes días:

-Urtarrilak 1	-1 de enero
-Urtarrilak 6	-6 de enero
-Urtarrilak 17	-17 de enero
-Aste Santua (Ostegun Santutik Pazko Astelehenera).	-Semana Santa (Jueves Santo a Lunes de Pascua)
-Maiatzak 1	-1 de mayo
-Uztailak 31	- 31 de julio
-Abuztua	-Agosto
-Urriak 12	-12 de octubre
-Abenduak 24	-24 de diciembre
-Abenduak 25	-25 de diciembre
-Abenduak 31	-31 de diciembre

Haurrentzako zerbitzuaren eta nerabeentzako zerbitzuaren kasuan, egun berezietan (azaroak 20, azaroak 25, abenduak 3…), herriko jaietan eta herrian antolatzen diren ekintza eta ospakizunetan parte hartu beharko da, programazioa egokituz.	En el caso del servicio para la Infancia y el Servicio para la Adolescencia, en días especiales (20 de Noviembre, 25 de Noviembre, 3 de Diciembre...), en fiestas del pueblo y en las actividades y celebraciones que se organicen a nivel municipal los servicios participarán adecuando la programación.
Bai egutegia, bai ordutegia, programa berezien edo jarduera jakinen ondorioz egokitu ahal izango dira, beti ere Udalaren oniritziarekin.	Tanto el calendario como el horario de los servicios, podrán variar a consecuencia de programas especiales o actividades concretas, siempre con el visto bueno del Ayuntamiento.
Zerbitzuaren erabileraren edo erabiltzaileen proposamenen arabera, egutegia eta ordutegiak aldatu ahal izango dira, eskaera berrietara egokitzeko, baina, horretarako, Udalaren oniritzia izan beharko da.	Según la utilización de los servicios o las propuestas de las personas usuarias, el calendario y los horarios podrán ser modificados para ajustarse a las nuevas demandas, debiendo contar con el visto bueno del Ayuntamiento.
Zerbitzu egutegiaren proposamena ikasturte hasieran aurkeztuko da, Udalaren Gazteria eta Hezkuntza Sailean.	Los calendarios se presentarán principios de septiembre en el Departamento de Juventud y Educación del Ayuntamiento.
Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporraldietan eskaintza berezia egingo da, hezkuntza zentruen egutegia kontuan izanda,	En el periodo vacacional de Navidad, Semana Santa y verano, se hará una oferta especial

eta, beraz, ohiko ordutegiak moldatu ahal izango dira.

dirigida a niñas, niños y adolescentes, teniendo en cuenta el calendario escolar.

Esleipendunak proposamena egingo du, eta Udalak proposamen hori onartu beharko du.

El adjudicatario hará la propuesta que deberá aprobar el Ayuntamiento.

7.2. Ordutegiak.

7.2. Horarios.

Haurrentzako Zerbitzua:

Servicio para la Infancia:

Asteartetik larunbatera. Asteartetik ostegunera 16:30etik 19:30era, eta ostiral eta larunbatetan, 16:00etatik 20:00era.

De martes a sábado. De martes a jueves: de 16:30 a 19:30 y viernes, y sábados de 16:00 a 20:00.

Nerabeentzako Zerbitzua:

Servicio para la adolescencia:

Asteazkenetik igandera. Asteazken, ostegun eta igandeetan 16:30 etik, 19:30era, eta ostiraletan eta larunbatetan 16:30etatik 20:30era.

De miércoles a domingo. Miércoles, jueves y domingos de 16:30 a19:30 y viernes y sábados de 16:30 a 20:30.

Bidelaguntza Zerbitzua:

Servicio de Acompañamiento:

Bidelaguntza zerbitzuak ez du ordutegi zehatzik izango. Artatu beharreko haurren eta nerabeen beharretan oinarritutako jarduera programa diseinatuko da; batzuetan Ludoteka eta Gaztelekuaren programazioan txertatuta eta besteetan berezituta.

El servicio de Acompañamiento no tendrá un horario concreto. Se diseñará un programa de actividades basado en las necesidades de los niños, niñas y adolescentes a atender, en unos casos integrados en la programación de la Ludoteca y el Gazteleku y en otros diferenciados.

Esleipendunak lan jardun bakoitzean arreta zuzenera eta bame lanera bideratuko diren urteko orduen kopurua Udalarekin adostuko du.

El adjudicatario acordará con el Ayuntamiento el número de horas anuales destinadas a la atención directa e indirecta en cada jornada laboral.

En función de la evaluación anual del calendario y de los horarios que se realicen se podrán proponer modificaciones en los cursos siguientes.

Egutegiaren eta ordutegiaren urteko ebaluazioaren arabera, aldaketak proposatu ahal izango dira hurrengo ikasturteetarako.

8.- EXEKUZIO EPEA

Prestazioa eskaintzeko guztizko epea urtebetekoa izango da, eta gehienez ere, beste urtebeteko hiru luzapen egin ahal izango dira. Luzapen bakoitzaren iraupena urtebetekoa izango da. Luzatzeko akordioa kontratazio organoak hartuko du, eta ezinbestekoa izango da enpresariarentzat, baldin eta aldez aurreko adierazpena kontratuaren epea bukatu baino hiru hilabete lehenago egiten badu.

Kontratatzailea berandutzan erori dela uste izango da aipatutako epea gainditzen badu; horiek horrela, Administrazioak ez du epea betetzeko eskaera egiteko beharrik izango.

8.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución de la prestación será de 1 año, con posibilidad de tres prórrogas de un año cada una. Las prórrogas se acordarán por el órgano de contratación y serán obligatorias para el empresario siempre que su preaviso se produzca, al menos, con tres meses de antelación a la finalización del plazo del contrato.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

9.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren aurrekontua, BEZ gabe, 475.060 eurokoa izango da urteko.

Urteko aurrekontua, BEZa, sartuta 574.822,60 eurokoa izango da.

Lizitatzaileek, kontratuaren xedea dela-eta, egingo dituzten lanei buruzko azterketa ekonomiko xehakatua aurkeztu beharko dute, eta osagai desberdinen gastuak zehaztu beharko dituzte.

Aurkezten diren proposamenetan banaturik zehaztuko dira oinarri zergapegarria eta BEZ zergari dagokion zenbatekoa. Hala, kontratuari dagokion BEZ zergaren tipoa eta zenbatekoa adieraziko dira, araudian ezarritakoaren arabera.

9.- PRECIO DEL CONTRATO

El presupuesto estimado máximo del contrato, IVA excluido, será de 475.060 euros anuales.

El presupuesto anual con IVA asciende a 574.822,60 euros.

Los/as licitadores/as deberán presentar un estudio económico detallado sobre la realización de los trabajos objeto del contrato, indicando los gastos de sus distintos componentes.

En las propuestas que se presenten se detallarán de manera separada la base imponible y la cantidad correspondiente al IVA, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora.

10.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

1.- Prezioa: 49 puntu.

10.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

1.- Precio: 49 puntos.

2.- Haurrentzako zerbitzua kudeatzeko proiektua: 17 puntu.	2.- Proyecto para la gestión del servicio para la Infancia: 17 puntos.
3.-Nerabeentzako zerbitzua kudeatzeko proiektua: 17 puntu.	3.- Proyecto para la gestión del servicio para la Adolescencia: 17 puntos.
4.- Bidelaguntza zerbitzua kudeatzeko proiektua: 17 puntu.	4.- Proyecto para la gestión del servicio de Acompañamiento: 17 puntos.